

Uraren erabilera arduratsua

Ura ondasun urri eta baliotsua da

Gure eginbeharra da arrazionaltasunez eta modu arduratsuan erabiltzea.

Bakarrik planetako uraren %2,8 al da geza?

Bai! Gainera, kopuru hori jada urria bada, ibaiekin eta aintzirekin erabil dezakegun uraia %0,01era ez da iristen.

Ura ondasun urria dela pentsatu behar da, baina, bestalde, pertsona guztientzako beharrezkoa, beraz, ezin dezakegu xahu, ezta degrada ere.

Orrialde hauen bitartez eguneroko bizitzan erantzukizunez ura erabiltzeko hainbat modu ikusiko dugu.


Ura bizitzeko

Planetan ura biziaren oinarria da; hala, gure bizi-kalitatea eta natur ekosistemen osasuna zuzenean uraren kalitatearen araberakoa da.

Kalitate oneko ura ingurumenarentzat onuragarria da eta pertsonen nahiz gainerako izaki bizidunen osasuna babesten du.

Kalitate txarreko urak, ordea, gaixotasunak zabaldu eta natura kaltetzen ditu.

Tamalez, munduan 2.500 milioi pertsona baino gehiagosaneamendua sistema egokirik ez duen komunitateetan bizi da. Komunitate horiekin solidarioa izatea lan humanitario garrantzitsua da.





Uraren kalitatea

Uraren kalitatearen araberakoa da ekosistemen eta pertsonen osasuna.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan, berriz, **kalitatea geroz eta mehatxatuagoa dago**. Hiri-hondakinen %90 eta industria-hondakinen %70 baino gehiago zuzenean ibaietako uretara isurtzen da tratatu edo prozesatu gabe.

Horrek ondorio negatibo asko ditu, besteak beste:

- Urdail eta hesteetako gaixotasunen agerraldiak eta heriotzak. Bereziki, pertsona ahuletan (umeak, gaixoak eta adinduak).
- Algen hazkuntza kaltegarria eta ibaietan oxigeno-maila baxua.
- Ekosistemetan eta elikadura-katean poluitzen duten produktu kimikoak metatzea.
- Aniztasun biologikoa aldatu eta espezieak desagertzea.
- Hondartzak ixtea, olgeta-nabigazioa mugatzea eta uraren beste erabilera batzuetan ondorioak.



Zer egin dezakete erakundeek uraren kalitatea babesteko?

Poluitzaileak isurtzeko orduan prebentzio- eta kontrol-neurriak hartzeaz gain, erakundeek **legeak** eta **arauak** egin behar dituzte, edateko uraren hartze- eta hornidura-prozesua arautzeko.

Halaber, **hondakin uren arazketa** eta **tratamendua** arautzen dituzten legeak eta arauak sustatu behar dituzte.

Natur hezeguneak babestea garrantzitsua da. Hori uraren kalitaterako eta animalien nahiz landareen bizirako onuragarria da. Horrez gain, gerriko ekologikoak eta ibaietan nahiz aintziretan ertzak babestu behar dira.

Industria eta nekazaritzaren sektoreekin lankidetzan jardun behar dute, **ura izeneko baliabidea babesten duten ingurumen-praktika onak gara ditzaten**.

Eta nik...

...Nola erabil dezaket erantzukizunez ura nire eguneroko bizitzan?

Ahal dudan neurrian aholku hauek kontuan hartu eta gauzatuko ditut:

- 1** Garbigailua eta ontzi-garbigailua bakarrik beteak daudenean jarriko ditut. Eta, lehenasunez, programa motzak eragingo ditut.
- 2** Komuneko tangaren ura bakarrik behar dudanean erabiliko dut. Gutxi husteko sakagailuaz baliatuko naiz. Sakagailua bikoitza ez bada, urez betetako botila jarriko dut barruan. Noski, ez dut janari-hondarrik, ezta zaborrik ere komunetik botako. Komuna ez da zakarrontzia.
- 3** Bainatu ordeztutako dutxa garbitzeko nahikoa izan daiteke. Bainuontzia erabili behar badut, ez dut oso-osorik beteko, edukieraren laurdena beteta nahikoa izan daiteke.
- 4** Txorrotetan eta dutxetan uraren barreiatzaileak jarriko ditut. Aparatu hauek asko murriztuko dute nire kontsumoa. Hautabide bezala, ixteko giltza pixka bat itxiko dut, emaria gutxitzeko. Aginte bakarreko txorrotak erabiliko ditut, tenperatura kontrolatzeko. Ildo horri jarraiki, txorrota irekitzen dudak bakoitzean, ez dut berriz ere tenperatura erregulatu beharrik.
- 5** Detergente ekologikoak erabiliko ditut. Hala, erabilitako ura errazago araztuko da.
- 6** Txorrotak itxiko ditut ondorengo ekintzak egiten ditudan bitartean: bizarra moztu, hortzak ala eskuak garbitu, platerak ikuzi, janaria garbitu ala dutxatzean.
- 7** Lorategia izanez gero, ur asko kontsumitzen duten espezieak ez ditut landatuko. Egunsentian edo ilunabarrean ureztatuko dut, ura ez lurruntzeko.
- 8** Nire etxeko espaloia garbitzen badut, mahuken ordeztutako erratzak erabiliko ditut. Autoa izan eta eskuz garbitzen badut, gastua murrizteko ontziak erabiliko ditut. Mahuka ahalik eta gutxienetan erabiliko dut.
- 9** Etxean hodian, komunen eta txorroten egoera zainduko dut, urak ez ihes egiteko. Matxurak lehenbailehen konponduko ditut.
- 10** **Ura gizarte- eta ingurumen-baliabide oso baliotsutzat joko dut. Une oro zaindu behar dudak Naturaren Ondarea da.**



Aldaketa klimatikoa

Nola eragiten dio uraren kalitateari?

Aldaketa klimatikoa eskala handian uraren zikloan izandako aldaketei lotuta dago.

Aldaketa Klimatikoari buruzko Gobernuen arteko Adituen Taldeak (IPCC) hala baieztatzen du ber ikerketa eta txostenetan.


XXI. menderako egindako estimazioei erreparatuz, prezipitazioen erregimena aldatuko da; geroz eta intentsitate eta aldakortasun handiagoa izango du eta uholdeen nahiz lehorteen arriskua eremu askotan areagotuko da.


Halaber, beste ondorio batzuk izango ditu, hala nola glaziarrek eta elur-geruzak murriztea, ozeanoetako zirkulazioa eta lurzorua hezetasuna aldatzea, etab.

Aldaketa klimatiko horrek guztiak uraren kalitatean eragingo luke baita arrazoi askorengatik (sedimentuak, elikagaiak, karbono organiko disolbatua, patogenoak, plagizidak metatzea, poluzio termikoa...) uraren poluzioa gehitu ere. Ekosistemetarako eta giza osasunerako ondorioak negatiboak lirateke.

Era berean, aldaketa klimatikoaren ondorioz uraren kantitatea eta kalitatea aldatuko lirateke eta elikagaien eskuragarritasunean, egonkortasunean, erabilerraztasunean eta erabileran eragingo luke.

Eta muturreko fenomenoek (lehorteek, uholdeek, etab.) poluitua dagoen ura diluitu eta naturaren oreka WWmantentzeko ekosistemen gaitasuna murrizten dute.





Gizakiek hirietarantz migratzea Nola eragiten dute uraren kalitatean?

Landa-guneetatik hirietarantz egindako migrazioak geroz eta ugariagoak dira munduko biztanleak gehiago diren neurrian Garapen-bidean dauden herrialdeetan fenomeno hori orokortuta dago.

Hiriko biztanleak 2010. urtean 3.400 milioi pertsona izanik, 2050. urtea iritsi baino lehen 6.400 milioi pertsona izatera pasako direla kalkulatzen da. Gaur egun hirian jada biztanle guztien %50 baino gehiago bizi da.

Bakarrik 40 urtetan ia bikoitza!

Egoera hau ez bada kontuan hartzen, hazkuntza azkar hau jada uraren kalitateak dituen arazoei erantsiko zaio.

Azpiegiturak nahikoak ez badira edo behar bezala mantentzen ez badira, udal-hondakinak kudeatu eta hondakin-urak tratatu eta deskargatzeko orduan, arazoak izan daitezke.

Kalitatezko urak garapen ekonomikoari laguntzen dio

Argi eta garbi dago urak garapen ekonomikoari lagundu diola. Eta, aldi berean, garapenaren ondorioz, ur gehiago erabili da.

Tamalez, ekonomia- eta gizarte-onurengatik ordaindu behar den kostua oso altua izan da: ingurumena degradatzea, muturreko fenomenoak areagotzea, ur gutxiago izatea...

Gure oinarrizko beharrak asetzeko ura funtsezko ondasuna dela jakitun izanik, sistema ekonomikoak erabilera arduratsua egiten ikasi behar du. Kalitatezko urak iraunkortasuna eta bizi-kalitate hobea lortzeko eragile bihurtu behar du.

Gainera, kalitatezko urean inbertitzea ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik errentagarria da. Onurak denbora aurreztetik eta produktibitatea gehitzetik osasun-gastuetan aurreztera arte doaz.

Hain garatuak ez dauden herrialdeetan edateko uraren horniduran eta saneamendu-zerbitzuetan inbertitzen den dolar bakoitzeko irabazi-tartea 3 eta 34 dolar bitartean kokatzen da.

Garapen-bidean dagoen munduan, biztanleentzako irabazia urtean biztanleko 15 dolarrera irits daiteke.



Ura industrian

Industriak ura modu askotan erabiltzen du: garbitzeko, hozteko, kimikoki erreakzioak eragiteko, produktu baten zati izateko eta abarrerako.

Adibidez: auto bat fabrikatzeko 400.000 litro ur behar dira. Paper zuriaren 1.000 kiloko bobina bat fabrikatzeko 100.000 litro erabiltzen dira. Ondoren, ur horren %10 baino gehiago oso poluitua gelditzen da, poluzioa prebenitu eta tratatzeko praktikak erabiltzen ez badira.

Herrialde aberatsenek uraren %58 industrian erabiltzen dute. Herrialde pobreenek, ordean, %8 besterik ez. Ia ez dute industriarik.



Ura giza eskubidea da


2010. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusiak **gizakiak ur eta saneamendurako eskubidea** duela onartu zuen. Halaber, edateko ura eta saneamendua giza eskubide guztiak garatzeko oinarritzkoak direla onartu zuen.

Era berean, Nazio Batuen Erakundeak berak eskubidea Milurtekoa Garatzeko Helburuetan bilduta du.

Nolanahi ere, mendearen hasiera honetan giza garapenerako bere "ibilbidea" da.

Ura gizadiaren ondasunik oinarritzkoena da. Gutxi gorabehera **planetako 100 pertsonatik 20k ez du edateko ura, bide batez, gutxieneko beharrak estaltzeko nahikoa ur.**

Batzuetan, eskualde lehorretan bizi diren pertsonak distantzia luzeak egin behar dituzte oinez, ura lortzeko. Baina, sarritan, arazorik larriena da lortu, biltegitatu eta banatzeko azpiegiturarik ez dagoela.





Zenbat ur behar dugu pertsonako?

Gaur egun planetan 7.000 milioi pertsona baino gehiago elikatu behar dira. 2050. urtean 9.000 milioi egotea aurrez ikusia dago.

Estatistiken arabera, pertsonak egunean 2tik 4 litrora bitartean edaten ditugu.

Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) ustez, 50l/bizt.-egun da uraren kantitate egokia oinarritzko giza kontsumorako: edan, janaria prestatu, norberak bere burua garbitu eta etxea ikuzteko.

Nekazaritzarako, industriarako eta ur gezaren mendeko ekosistemak kontserbatzeko ura eransten badiogu, gutxieneko kopurua 100 l/bizt.-egunekoa da.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) azkeneko datuekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan 117 litro/bizt./egun gastatu ziren eta 2010. urteko datuekin alderatuz %4,1 murriztu da.

Dena den, ez dakigu “edaten dugun” ur gehiena kontsumitzen ditugun elikagaietan dagoela. Behiaren 1 kilo haragi produzitzeko, adibidez, 15.000 litro ur kontsumitzen dira eta ogia, pasta edo gosari-zerealak egiteko 1 kilo garik 1.500 litro ur “edaten” ditu.

Nik ondorengo neurriekin lagundu nahi dut, munduan mila milioi pertsona gose-egoera kronikoan bizi baita eta baliabide hidrikoek presioak pairatzen baitituzte:

- Ura hain intentsiboki erabiltzen ez duten produktuak kontsumitzen ditut.
- Elikagaien hondakinak murrizten ditut eta ekoizteko erabiltzen den ura ez galtzea eta, ondorioz, behar izan gabe degradatzea saihesten dut.
- Nekazaria banaiz, nekazaritzaren eta ingurumenaren ikuspegitik praktika onak erabiltzen ditut etaurezta pen-sistema eraginkorrez baliatzen naiz.
- Elikadura osasuntsua daramat.

Ekoizleetatik kontsumitzaileetaraino, hornidura-katearen etapa guztietan ura modu arduratsuan kudeatzeko eta guztiontzat elikagaiak daudela ziurtatzeko neurriak har daitezke.



Gehiago jakin nahi baduzu:

Bizkaia 21 web orria: Uraren arazoizko kontsumoa

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Busturialdeko Ur Partzuergoa

URA – Uraren Euskal Agentzia

Ura NBE

Internatura Educación Ambiental

Eurosur sarea

Ekologia eta garapena